

EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III PLANA
2014KO EKINTZEN JARRAIPENA

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
NO1.1. Berdintasunaz eta politika publikoetan genero ikuspegiaren integrazeari buruzko politikariei zuzenduriko sentsibilizazio plana diseinatzea eta garatzea.	Berdintasuna	2 orduko prestakuntza-ikastaroa egin da: "Berdintasunaren politikak eusten dituzten balioak, eta kudeaketa publikoarekin daukaten harremana" Ez dute pertsona guztiek parte hartu, ezta alderdi politiko guztiek ere.
NO1.2 Udaleko teknikarientzat Berdintasunaz eta Politika publikoetan genero ikuspegia txertatzeari buruzko trebakuntza diseinatzea eta garatzea.	Berdintasuna	Burutu gabeko jarduera. Getxo Kirolak udal-kiroldegiarentzat prestakuntza-ikastaro bat antolatu da, baina 2015era atzeratu da. Gizarte-langileei prestakuntza eskaini zaie indarkeriaren arloan, baina beste gai batzuei lehentasuna eman zaie.
NO1.3. Hirigintzako, Ingurugiroko eta Getxolaneko teknikarientzat berdintasunaz eta bere arlo zehatzetan genero ikuspegia txertatzeko trebakuntza diseinatze eta garatzea.	Berdintasuna	Burutu gabeko jarduera.
NO2.1. Mahai Teknikoaren bitartez (Udal lantaldea) Udaleko langileen arteko elkarlana eta koordinazioa bermatzea	Berdintasuna	-Udaleko lantaldeak bilera bakarra egin du (Bertan izan dira Gazteria, Gizarte Zerbitzuak, Immigrazioa, Getxolan, Kultur etxea eta Berdintasuna) -Berdintasunaren arloan koordinazio-bilerak egin dituzte arlo hauekin: Gazteria, Euskara, Getxolan, Kontratazioa, Barne Erregimena, Immigrazioa, Getxo Kirolak, Gazteleku, SISE-SIP, Gizarte Zerbitzuak, Komunikazioa, Informatika, Udaltzaingoa eta Ingurumena.
NO3.1 Udalean egindako estatistika eta proiektu guztietan genero ikuspegia txertatuko dela bermatzea.	Arlo guztiak	Arlo bakoitzaren nahiaren eta kanpo-iturrietako datuen erabilgarritasunaren araberakoa da. Barne hartu dira, kasu guztietan ez bada ere, eremu hauetan: Getxo Kirolak, Immigrazioa, Gizarte Zerbitzuak, Getxolan, Lankidetz, Udaltzaingoa, Euskara, Gazteria eta Hiri-behatokia.
NO3.3. Datuak segregaturik jasotzea eta Behatokiaren txosten guztietan genero ikuspegia txertatzea, horrela lan munduan emakume eta gizonen errealitatea berezitua hobeto ezagutzeko.	Getxolan	Datu desagregatuak, ahal denean, txosten sozioekonomikoan, enpresen erradiografian eta adierazle sozioekonomikoen aplikazioan. Orokorrean, sexua ez da beste aldagaiekin gurutzatu.
NO4.1. Udalak antolatutako dirulaguntza deialdietan berdintasun irizpideak txertatzea.	Arlo guztiak	Ia arlo guztiek sartzen dituzte: Gazteria, Gizarte Zerbitzuak, Lankidetz, Kultura, Euskara, Getxo Kirolak, Berdintasuna 2014an ondoko hauek ez dituzte sartu: Ingurumena, Getxolan

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
NO4.2. Berdintasuna bultzatzea helburu daukaten ekintzei dirulaguntzak ematea.	Berdintasuna	Guztira 23.310 € eman dira, honela banatuta: 1. ildo: Bilgune Feminista 4.000 €, Gizatiar 7.419,5 € eta Roda 4.896,86 € 2. ildo: Mujeres con voz 3.100 €, Gizatiar 2.891,99 € eta Moviéndote por la integración 1.000 €
NO5.1. Udaleko Web-gunearen, Emekiren eta Intranetaren bitartez, Berdintasun Arloaren ekintzen eta informazioaren zabalpena bermatzea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera guztiak web-orriaren eta Getxoberriren bidez zabaltzen dira - 21 prentsa-ohar eta prentsaurreko bat - posta elektronikoko bidalketak - Emeki aldizkariaren urteroko 3 zenbaki, 4.000 ale izatetik 30.000 ale izatera igaro da (eta Getxoberriren aldizkari izatetik gehigarri izatera).
NO5.2. Berdintasun Plana Udalerrian zabaltzea.		Plana web-orrian dago. 2014an ez da hedapen handiagoa egin.
NO6.2. Berdintasun Kontseilua dinamizatzea.	Berdintasuna	Araudia jasotzen duten urteroko 6 bilerak egin dira.
NO7.1. Enplegu Publikoko deialdietako gaitegieta berdintasunaren inguruko gaiak txertatzen jarraitzea.	Langileria	Jasota geratu dira 2010eko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik eratorritako hautaketa-prozesuen deialdi guztien berriazko oinarrietan.
NO7.2. Lan-poltsetan puntuazio berdina dagoenean, emakumeak azpiordezkatuta dauden postuetan hauek lehenesteko irizpidea mantentzea	Langileria	Lehentasuna eman zaie bai Enplegu Publikoaren Eskaintzaren oinarri orokorretan bai lan-poltsetarako procesuen oinarri arautzaileetan.
NO7.3. Hautapen mahaian osaera parekidea izango dela bermatzea.	Langileria	Jasota geratu dira 2010eko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren oinarri orokorretan.

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
NO8.1. Erosketa publiko arduratsuari eta berdintasunari lagunduko dioten klausula sozialak txertatzea.	Berdintasuna Kontratazioa Arlo guztiak	<ul style="list-style-type: none"> - Udalak hitzarmen bat dauka Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren sarearekin, ekonomia solidarioa eta erosketa arduratsua sustatzeko (aholkularitza, teknikarien prestakuntza, eta gaiari buruzko instrukzioa). - Batzorde bat dago gizarte-klausulak sustatzeko, eta bertan parte hartzen dute honako hauek: Getxolan, Lankidetz, Kontratazioa, Immigrazioa eta Berdintasun Zerbitzua. 2014an bitan bildu da. -Berdintasunaren gizarte-klausulak: arlo gehienek ez dute bat ere sartu. Jasota geratu dira Berdintasun Zerbitzuaren, Euskararen eta Langileen Arloaren kontratuetan.
HzA2.1. Neskek eta mutilek beren ikasketak eta lanpostuak erabakitzeko orduan jasten dituzten baldintzapenak gainditzeko baliabideak (hitzaldiak, bideoak, materiala...) eskaintzea.	Berdintasuna	Burutu gabeko jarduera
HzA2.2. Ikasketa eta lanpostuen hautaketa ez sexistarako ekintzen bitartez gurasoak sentsibilizatzea (liburuxkak, hitzaldiak...)	Berdintasuna	Burutu gabeko jarduera
HzA3.1. Helburu eta ekintzak zehaztu eta garatzea hezkuntza eta aisiaren eskaintzaren bidez berdintasuna susta dadin	Gazteria	<ul style="list-style-type: none"> -Gaztelekuak Berdintasuna sustatzeko eta indarkeria prebenitzeko jarduerak antolatu ditu, martxoaren 8a eta azaroaren 25a direla eta. -Hiru "Sex-leku" saio Gaztelekun -Gazteria Zerbitzuak tailer bat antolatu du Beldur Barik ekitaldiaren barruan (ez da burutu parte-hartzaile faltagatik).
HzA3.2. Aisialdi eskaintzak egiten dituzten elkarteen ekintzetan berdintasun helburuak txertatu daitezen bultzatzea.	Gazteria	Gazteriaren diru-laguntzen deialdiak gizon-emakumeen berdintasunarekin zerikusia daukaten irizpideak espresuki biltzen ditu.
HzA3.3. Gurasoen eskolako ekintzetan eta " Seme-Alabak" aldizkarian hezkidetzak eta berdintasunaren inguruko gaiak barneratzea.	Gizarte Zerbitzuak	Gai horiek ez dira espresuki jorratzen ez aldizkarian ezta Gurasoen Eskolan ere. Zeharka, ikuspegi hori ematen zaie gaikako jarduerak guztiei.
HzB1.1. Sentsibilizazio ekintzak egitea aiten esku-hartze prozesua indartzeko eta, tradiziozko rolak gaindituz, etxeko eta zaintza lanen banaketa parekoa, norberaren autonomia, etab, bultzatzeko.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> Ez da jarduera-kanpaina zehatzik egin; aldiz, jarduera hauetan tratatu da: - Emeki aldizkariaren maiatzeko aleak etxeko lanari eta zainketei egin die erreferentzia. - Tailerra emakume zaintzaileentzat - Tailerra: maskulinitasunari buruz berriz hausnartzen

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
HzB2.3. Udaleku, ludoteka... bitartez bateragarritasuna erraztuko duten aisialdi ekintzak eskaintzea.	Gazteria Euskera	<ul style="list-style-type: none"> -Udalaren udalekuak: 198 (86 neska eta 112 mutil) - 2014-15 ludoteka: Guztira 11 (70 neska eta 41 mutil). 2014ko Eguberrietako Kanpaina: Guztira 37 (14 neska eta 23 mutil). -Bapirukeren udalekuek diru-laguntza jasotzen dute.
HzI1.1. Indarkeria sexista prebenitzeko programak eskaintzen jarraitzea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> -Eraldatzen tailerra, ikasgelan 6 orduko parte-hartzea DBHren 3. mailako 4 ikastetxe hauetan: San Nikolas, Azkorri, Aixerrota, Caro Baroja. Parte hartzea: 145 neska eta 173 mutil. Gainera, 4 orduko esku-hartzea Faduran (48 mutil eta 20 neska). - 3 orduko saioa indarkeriaren prebentzioari buruz, migratu duten emakumeentzako topaketa- eta prestakuntza-tailerren barruan - "Getxon bizi" migratu duten pertsonen harrera-programaren barruan indarkeriaren prebentziozko tailer bat egin da emakumeekin - Gazteen artean sexu-indarkeria prebenitzeko proiektuen balorazio zehatza, elkarreentzako diru-laguntzen barruan. - Tailerrak Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren barruan: Autodefentsa feminista (12 ordu, 19 partaide), Geure burua maitatzen ikastea (20 ordu, 16 pertsona), Indarkeriari ate azpitik pasatzen utziko diogu? (20 ordu, 16 pertsona), Genero-indarkeriaren kontrako Legearen aplikazio eraginkorra aztertzea giza eskubideen ikuspegitik (8 ordu, 14 pertsona), Gazteak eta indarkeria matxista (20 ordu, 12 pertsona).

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
<p>JdA2.1. Harrera tailerrak eta lan aurreko moduluak zabaldu eta mantentzea</p>	<p>Immigrazioa</p>	<p>- Getxon Bizi. Udalak antolatuta eta Médicos del Mundo elkarteak emanda: 19.125,30€: Tailerra: " Nutrizioa eta sukaldaritza" (4 saio, 16 ordu) Tailerra: "Zaindu zeure burua: autozainketa beste pertsona batzuk zaintzen dituzten pertsonentzat" (5 saio, 20 ordu). Tailerra: "Gure artean (emakumeentzako tailerra)" (4 saio, 16 ordu) Tailerra: "Maskulinitate berriak (gizonentzako tailerra)" (2 saio, 8 ordu) Gune irekia: "Osasuna sortzeko artea", 11 saio 33 ordu Parte-hartzea: 58 pertsona (41 emakume, 17 ordu).</p> <p>- 9 talde-saio juridiko atzerriartasanari buruz 1.306,80 € -ildo berria: "Migratu duten pertsonak hartzea eta kulturartekotasuna sustatzea", Gizarte Zerbitzuen urteko laguntzen deialdian, 8.000 €-ko zenbatekoarekin, Getxoko Immigranteen Plataformari emana. Burututako proiektuen xehetasuna: Harrera-zerbitzua Etxeko lanari buruzko informazio-saioak Atzeritarren eskubideei buruzko hitzaldiak Kulturarteko obradorea Euskal kulturari eta inguruneari buruzko informazio-saioak CON VOS Zerbitzua (sexu-jazarpena/erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntzea)</p>
<p>JdA2.2. Elkarte indartze prozesuen alde egitea: bultzatzea ,bai etorkinen elkarte espezifikoak bai emakumezko etorkinenak nola emakume hauen sarrera beste elkarteetan ere.</p>	<p>Immigrazioa Berdintasuna</p>	<p>- Harrerarako ildo zehatz bat sortzea lehen aipatutako Gizarte Zerbitzuen urteko laguntzen deialdian. - Berdintasunari diru-laguntzak ematea Getxoko erakundeen ohiko jardueraren funtzionamendu- eta/edo mantentze-ildoaren barruan: 3.000 € eta Kosmopolis: 3.000 € - Berdintasuna Zerbitzuaren 3.100 €-ko diru-laguntza, lokalak lagatzea eta Mujeres con voz erakundearen jarduerak hedatzen laguntzea. - 2012az geroztik, migratu duten emakumeentzako topaketa- eta prestakuntza-tailerrek programaren barruan sartu dute Euskadiko udalerrietatik migratutako emakume-taldeekin biltzea xede horrekin. 2014ko bilera Getxon egin dute.</p>

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
JdA2.4. Emakume etorkinen parte hartzea bultzatzea Jabekuntza Eskolan eta elkartruckerako guneak sortzea.	Berdintasuna Immigrazioa	<ul style="list-style-type: none"> -Eskolari buruzko informazioa eman zaie Gizarte Zerbitzuei, immigranteen plataformari, Getxo Biziren parte-hartzaileei, eta Getxo entre culturas-i facebook bidez. -Biztanle horiek erabilitako guneetan hedatzea (mintzategiak, merkataritza eta ostalaritza) -Migratu duten emakumeen aldeko akzio positiboa hautaketa-prozesuan. -Trukerako gunea, kulturarteko elkarrizketak emakumeen artean - Mujeres con Voz elkartearen jarduerak hedatzeko diru-laguntzak eta babesa ematea. Jabekuntzarako kulturarteko gunea. - Migratu duten emakumeen topaketa-eta prestakuntza-tailerrak, harrera-gune moduan eta aurretiko hausnarketarako. Parte-hartzaileak bereziki motibatu nahi ditugu, kulturarteko elkarrizketen edo beste ikastaro batzuen bidez jabekuntza eskolara sar daitezen.
JdA3.1. Dirulaguntzak ematea horrela eskatzen duten alargun eta pentsionisten elkarteei	Gizarte Zerbitzuak	Inork ez du eskatu
JdA3.2. Jarraitzea hitzaldi informatiboak antolatzen eta informazioa zabaltzen sektore honi eragiten dioten gai desberdinei buruz alargun eta pentsionisten elkarteekin batera .	Berdintasuna	Burutu gabeko jarduera
JdA4.1. Harremanak indartzea ezintasunak dituzten pertsonekin lan egiten duten elkarteekin.	Gizarte Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> - Diru-laguntzen emakida bidez, jarduerak aurrera eramateko - Lokalen erabilera lagatzearen bidez, jarduerak aurrera eramateko. - Jardueretan parte-hartzea sustatuz SAREKIDE Getxoko Boluntariotza Erakundearen Elkartearen, sarea eratuz, ezagutzak partekatuz, ikastaroak eta ekitaldiak antolatuz...
JdA4.2. “Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaren diagnostikoa martxan jartzea.	Gizarte Zerbitzuak	Zainduz hitzarmena Foru Aldundiarekin, geroko jardueretan xehatua
JdB1.1. Zaintzarekin zerikusia duten zerbitzuen eskaintza hobetzea (Eguneko zentroak, atsedeen programak, etxe laguntza, etab.) beti ere udal eskumen barruan.	Gizarte Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileek arnas hartzeko programak, 48 ordu urtero, dohainik. Erabilitako arreta-orduak, guztira: 1.028,50. Eskatu duten pertsonak, eta jaso dutenak: 56, 37 emakume eta 19 gizon. Erabili duten pertsonak: 40, 25 emakume eta 15 gizon

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
JdB1.2. Laguntza eskaintzea zaintzaileei genero perspektiba barneratzen duten ikastaro, tailer, eta auto-laguntza taldeen bidez.	Gizarte Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza psikologikoa: 14 orduko 2 ikastaro: (8 emakume, ordu 1, eta 12 emakume, 2 ordu). - Erlaxamendua: 3 ikastaro, 21 ordukoa bata (23 emakume, 4 ordu) eta 10 ordu eta erdiko bi (20 emakume, 7 ordu eta 11 emakume, 1 ordu). - Mobilizazioak eta transferentziak: 14 ordu (9 emakume, 3 ordu). - Informazio-hitzaldiak: "Zaintzailearen emozioak" (9 emakume, 1 ordu.) ; "Mendeko pertsonen portaera-desorekak" (8 emakume, 2 ordu) - Getxon Biziren barruan, migratu duten pertsonentzat, 20 orduko tailerra " Zaindu zure burua: autozainketak zu zaintzen zaituzten pertsonentzat", parte-hartzaileen osasunaren prebentziorako eta sustapenerako, sexu- eta ugalketa-osasuna eta giza eskubideak barne.
JdB1.3. Emakumezko zaintzaileak sentsibilizatzea auto-zaintzaz eta euren aisialdi propioaz gozatzeak duen garrantziaz.	Gizarte Zerbitzuak	-Ikastaroa: <i>Besteak zainduz norbera zaintzea, Jabekuntzaren Eskolan</i> (16 ordu, 12 emakume)
Jdl1.2. 24 orduko arreta zerbitzua eskaintzea; beti ere EAEko Zerbitzuen Katalogoak horrela jasotzen badu..	Gizarte Zerbitzuak	Zerbitzuen katalogoa 2014ko abendura arte ez da onartu. Ez da martxan jarri 24 orduko arreta-zerbitzua.
Jdi2.1 Protokoloaren Jarraipen Batzordean dauden erakunde artean parte-hartze aktibo bat bultzatzea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> -Arauzko bi bilerak egin dira, eta protokoloaren funtzionamendua baloratu da. -Deialdiak eta aktak bidali zaizkie erakunde sinatzaile guztiei. -Zerikusia daukaten beste informazio batzuk bidali dira.

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
Jdi2.1. . Protokoloan inplikaturako Udaleko teknikarien trebakuntza bultzatzea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Udaltzaingoa: Genero-indarkeriari buruzko ikastaroa, 6 udaltzain Polizia Zuzenbideari buruzko ikastaroa; gaietako bat genero-indarkeria da; 10 udaltzain - Gizarte Zerbitzuak: Koordinatzaileak parte hartu du indarkeriaren biktimen datu-babesari buruzko jardunaldian - Berdintasunaren zerbitzua: Berdintasunaren indarkeria-batzordean parte hartzea; haren helburua da hausnarketarako gunea sortzea, eztabaidatzea eta indarkeria matxistaren alderdi ezberdinei buruz lan teoriko-kontzeptual bat egitea; eta indarkeria matxistaren inguruan egiten den lana hobetzea udalean. - Politikariak: Berdintasunaren eta Gizarte Zerbitzuaren zinegotziek Berdintasunaren prestakuntza-jardunaldi honetan parte hartzea: "Publikoki jarduteko gomendioak, emakumearen kontrako indarkeriaren kasuetan".
HIGA1.1. Emakume taldeen ordezkarien parte-hartzea bermatzea Hirigintza Planteamenduaren Aholkularitza Kontseiluan	Urbanismo	Alkatearen 2013ko dekretu bidez onartutako Getxoko Udal Plangintzaren Aholkularitza Batzordeak emakumeen elkartearen izenean ordezkari batek parte har dezala jasotzen du.
HIGA1.2. Emakume taldeen ordezkarien parte hartzea bermatzea Ingurugiro Foroan	Ingurugiroa	Gizatiar erakundeak parte hartu du
HIGB1.1. Udalerriko auzo ezberdinak beren artean komunikatuko dituen azaleko garraiobide egokitu bat martxan jartzea.	Urbanismo Ingurugiroa	Burutu gabeko jarduera
HIGB1.2. Bizikleta garraiobide moduan bultzatzen jarraitzea eta bidegorri sarea eta bizikleta alokairu zerbitzua zabaltzea.	Ingurugiroa	Burututako jarduera

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
HIGB1.3. Oinarri integral batetatik, Irisgarritasuna hobetzeko ekintzak garatzen jarraitzea	Urbanismo	<p>-Obraren egikaritzea: Jolastokieta kaleko espaloia konpontzea eta Jolastokieta kalearen eta Novia Salcedo kalearen arteko oinezkoen pasabidea beheratzea</p> <p>-Obraren egikaritzea: Venancia Etxebarria kaleko espaloia konpontzea eta Novia Salcedo eta Ibaigane kaleen arteko oinezkoen pasabidea beheratzea.</p> <p>-Kresaltzu eta Ibaiondo kaleen artean Santa Eugenia kaleko jolaslekua estaltzeko proiektua idaztea.</p> <p>-Obraren egikaritzea: Kresaltzu kaleko plataforma bakarra (Aurrezki Kutxa-Santa Eugenia).</p> <p>-Obraren egikaritzea: Cervantes kaletik Zugazarte etorbidearen lurpeko pasabidera jotzeko irisgarritasuna hobetzea</p> <p>-Obrei hasiera ematea: Ollarretxe kalea egokitzea Redentor kalearen eta Salsidu etorbidearen artean.</p> <p>-Obrei hasiera ematea: Bilboko Metroaren trazaduraren estaldura urbanizatzea Maidagan kaletik pasatzean.</p>
HIGB1.5. Igoailuen asteburuetakako ordutegiak moldaketa aztertzea.	Urbanismo	2011n jada ordubete edo ordu eta erdi luzatu ziren ordutegiak, urteko hilabeteen eta asteko egunen arabera. Ez da aldaketarik egon.
HIGB1.6. Lekuak egokitzea: <ul style="list-style-type: none"> • Udalerriko hainbat lekuetan edoskitzeko eta fardelak aldatzeko tokiak moldatzea. • Aisi eta jolas gune batzuetan balioanitzeko mahaiak jartzea. 	Urbanismo	<p>Burutu gabeko jarduera</p> <p>Espazio publikoei ez zaizkie funtzio anitzeko mahaiak hornitu.</p> <p>Edoskitze-gelei dagokienez, aurreikusita dago gela horiek kultur instalazio berrietan egokitzea (Romoko Kultur Etxea eta Getxo Antzokia).</p> <p>Pixoihal-aldagailuak daude Gobelan, Faduran eta Villamonten, eta gizonentzako bainuan ere jarri zen.</p>
HIG1.2. “ <i>Getxoko Emakumeentzako Hiri Debekatuaren Mapan</i> ” emandako aholkuen jarraipena egitea eta betetze maila baloratzea.	Berdintasuna	2014an ez zaio jarraipenik egin.
EnA1.1. Genero haustura digitala gainditzea bilatzen duten ikastaro eta ekintzak antolatzea	Getxolan	Getxolanek jada ez ditu zerbitzu horiek eskaintzen.
EnA1.2. Enpresak sortu nahi dituzten emakumeei aholkularitza eskaintzen jarraitzea	Getxolan	Burututako jarduera

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
EnA1.3. Getxolaneko zerbitzu eta programa guztietan lehentasuna ematea: 44 urte baino gehiagoko emakumeei, familia ardura duten emakume bakarrei eta txertaketa soziorabalerako zailtasunak dituzten emakumeen kolektiboi	Getxolan	Getxolanek jada ez ditu zerbitzu horiek eskaintzen.
EnA1.4. Programa bat diseinatzea eta martxan jartzea nahikorik kotizatu ez duten pertsoneri laguntza emateko, bereziki zaintza lanetan aritu diren emakumeei, beraien kotizazioa osa dezaketen..	Getxolan	Burutu gabeko jarduera
EnA2.1. Etxelangintza sektorean ari diren pertsoneri beraien lan eskubideez informatzea.	Berdintasuna Getxolan Immigrazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Getxolanek jada ez ditu informatzeko eta orientatzeko zerbitzuak eskaintzen. Lanbideri transferitu zaio. -Getxoko Immigranteen Plataformari 6. ILDOAN diruz lagundutako programaren jarduera zehatza: 3 informazio-bilera, atzerritarren eskubideei buruz, lan-eskubideak barne (apirila, ekaina eta urria). -Berdintasunaren eta immigrazioaren zerbitzuek Etxeko Langileen Elkartearen egutegiak zabaldu dituzte, oinarritzko eskubideak biltzen dituztenak - Migratu duten emakumeen topaketek 3 orduko bilera jasotzen dute, gai honi buruz: lan-eskubideak etxeko sektorean
EnA2.2. Getxoko enplegatzaileei jakinaraztea etxe enpleguaren lan harreman markoa .	Berdintasuna Getxolan	Getxolanek jada ez du bitartekotza-zerbitzurik eskaintzen.
EnA3.1. Segidako traktuko zerbitzuetan emakumeek daukaten presentziaren inguruko azterketa bat egitea eta sexu arrazoiengatik alborapenik dagoen identifikatzea.	Berdintasuna	Burutu gabeko jarduera
EnB1.1. Bateragarritasuna lagundu eta enplegurako prestakuntza eskaintzan emakumeen parte hartzea ahalbidetzen dituzten hobekuntzak sartzea.	Getxolan	2014an ez da lanerako prestakuntza-eskaintzarik egin.
EnB2.1. Bateragarritasunaren inguruan dauden beharrak zehazteko eta hartu beharreko neurriak definitzeko lerketa bat egitea.	Langileria	Ez dago azterketarik; dena dela, malgutasun-ordutegia zabalteaz gainera norbanakoaren beharrei erantzutea aurreikusten da. Ildo horretatik, beste ordutegi bat dago beren kargura mendeko pertsonak dituztenentzat; ordutegi hori 10 eguneko aurrerapenarekin eskatu behar da, eta 15 egunerako izango da gutxienez.
EnB2.2. Udaleko langileentzako bateragarritasun neurrien inguruko informazioa emateko liburuxka bat egitea.	Langileria	Ez da liburuxkarik egin, baina familiaratekoak zaintzeko lan-utzialdiari buruzko arauak intraneten daude, udaleko langile guztiek atzipen informatikorik ez badaukate ere.

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
EnB2.3. Baimenak, lizentziak eta eszedentziak erregulatzen dituzten arauak ezagutaraztea eta gizonak hauek erabiltzera bultzatzea.	Langileria	Burutu gabeko jarduera, gizonen erabilera sustatzeari dagokionez. Intraneten bidez ezagutzera eman dira.
KA1.2. Getxoko Emakume sortzaileak modu aktibo batean sustatzea une honetan dauden programen bidez.	Kultur etxea	Emakume sortzaileak diru-laguntza, Getxoarte, erakusketa-gela, emakumeen zikloa musikan, emakumeak eszenatokian eta beste programa batzuen bidez sustatzen dira.
KA1.3. Emakume etorkinen eta Getxoko elkarten artean komunikazio eta elkarlan zubiak eraikitzea (Euskara Showa, arrazakeriaren aurkako nazioarteko egunaren antolaketa, munduko terrazak...eta era horretako ekimenen bidez).	Immigrazioa	-Martxoaren 21eko, ekainaren 20ko eta abenduaren 18ko kanpainak -Esamesen kontrako estrategia -Topaketen liburutegia: Munduko Paisaiak -Bizilagunak -Kulturarteko ibilaldia Urkiolara
KA2.1. Getxoko Emakume kirolariak ikusgarri egitea neska gazteentzako eredu moduan.	Getxo Kirolak	
KA2.2. Udalerriko kirol federatuen emakumeen parte-hartzea gehitzeko edo hobetzeko esfortzu handiena egin duen klub-ari aitortza egiteko, "Berdintasuna Kirolean" urteko saria sortzea.	Getxo Kirolak	2014an Berdintasuna Indartuz saria sortu da, emakumeek udalerriko kirol federatuen daukaten parte-hartzea areagotzeko eta beraien baldintzak hobetzeko gehien ahalegindu den kluba aitortzeko helburuarekin. 2015eko urtarrilean eman da lehen aldiz
KA3.3. Getxoko Udalerriari dagoen kirol eskaintza zabaltzea.	Getxo Kirolak	Burututako jarduera
KA4.1 Jabekuntza eskolarako urteroko egitaraua osatzea emakume gazteen interesak kontutan hartuta.	Berdintasuna	Eskolako programazioak barne hartzen ditu gazteentzat erakargarriagoak izan daitezkeen ikastaroak
KA4.2. Emakume gazteei zuzendutako zabalpen espezifikoko bat egitea.	Berdintasuna Gazteria	Gazte Bulegoaren (email, sms eta liburuxkak bidaltzea), ikastetxeen eta Gazteak aldizkariaren bidez hedatzea.
KA5.1. Jardunaldien, hitzaldien, nazioarteko sareen, publikazioen...bidez, Getxoko eta Hegoaldeko herrietako emakumeen arteko elkarlan eta truke ekintzak bultzatzea.	Lankidetzak	Jabekuntzaren Eskolako ikasturte amaierako jardunaldia: "Mendebaldeko Saharako emakumeak: jabekuntza hormaren bi aldeetara", Tindoufeko kanpalekuetako eta Marokoko lurralde okupatuak emakumeek parte hartu dute.

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
KA5.2. Getxoko udalak diruz lagundutako proiektuak jasotzen dituzten herri batzuetako emakumeen egoera eta posizioa ikusgarri egiteko, Getxotik Mundura Programaren barruan antolatzen diren ekintza eta guneen sustatze eta promozio politikaren jarraitzea.	Lankidetzaz	Getxotik Mundura -Mundutik Getxora: -Guatemalako emakumeen poesia -Ezkutuko pronostikoa. Oihulari Clown. -Malagasy Gospel, Madagaskarreko emakumeen abesbatza -Erakusketa: "Gaur hasten da etorkizuna", dalit emakumeen egoerari buruz (India) -Erakusketa: "Bidezko merkataritza kontsumitzeko hamar arrazo". Arrazoen artean aipagarria da gizon-emakumeen lan-baldintzen berdintasuna
KA8.1. Gizonak aukera berdintasunaren aldeko jarrera eta konpromisoetara erakartzea.	Berdintasuna	- Getxon bizi migratu duten pertsonen harrera-programaren barruan 8 orduko tailer bat egin dute gizonentzat, maskulinitasunari buruzkoa - Tailerra: "Maskulinitasunari buruz berriz hausnartzen", (14 ordu, 18 gizon) - Kanpaina: Pasa zaitez lilara, biztanleria osoari zuzenduta, eta elkarrekin bereziki.
KA8.2. Emakume gazteak trebatzea eta baliabideak eskaintzea, berdintasun formalek harantzago, existitzen diren diskriminazio egoeren inguruko kontzientzia hartzeko.	Berdintasuna	-Ikastaroak Jabekuntzaren Eskolan -Tailerrak ikastetxeetan -Getxo Iguala + Gidaren diru-laguntza
KA8.4. Herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak antolatzen jarraitzea: Martxoaren 8 eta Ekainaren 28 inguruan.	Berdintasuna	Martxoak 8: - Hitzaldia: "Sexu- eta ugalketa-eskubideak. Abortuaren legearen erreforma" - Antzokia: Código Atenea - 81 Amama dokumentalaren aurkezpena -Aitorpen instituzionala Aurrekontua 1.917,77 Ekainak 28: Hitzaldia: gazteriak homofobia nola hautematen duen, Gehiturekin. Aurrekontua 1.149,42
KB1.1. . Jai guneetan, kontzertuetan...egunez zein gauez, modu seguru batez mugitzeko garraio publikoa eskaintzea.	Kultur etxea	Gaueko autobusa Andramari jaietarako. Egunez ohiko garraio publikoa dago.
KB1.2. Kultur ekintzetara zuzendutako lekuetan eta kirol eraikinetan edoskitzeko gelak eta fardelak aldatzeko guneak prestatzea.	Kultur etxea Getxo Kirolak	Pixoihal-aldagailu gehiago jarri dituzte Faduran eta Gobelan, eta seinale sexistak aldatu dituzte. Edoskitze-gelak egokituko dira ekipamendu berrietan.
KI1.1. Jai batzordeak jaietan indarkeria sexista desagerrarazteko lanean inplikatzeko.	Berdintasuna	Festa guztietako batzordeekin harremanetan jarri dira, txosnatan pegatinak banatzeko.

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
KI1.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari laguntzeko udalerrri mailako kanpainak eta ekintzak egitea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Azaroaren 25eko kanpaina - Beldur Barik kanpainaren tailerrak -Tailerrak ikastetxeetan -Tailerrak Jabekuntzaren Eskolan -Emeki aldizkaria, azaroko alea
KI1.3. Emakumeen aurkako eraso sexistei gaitzespen instituzionala adieraztea	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> -Jarduera guztiei erantzuna eman zaie prentsa-oharren bidez -Kontzentrazioa deitu da festetako sexu-erasoa salatu eta gero -Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala
OA1.3. Emakumeen bizitza ziklo ezberdinen inguruko informazioa ematea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> -Jabekuntza Eskolaren tailerra: Zure gorputzak zer daki zuk (oraindik ez dakizun horri buruz? 16 ordu - Kontsultak sexu-informazioko bulegoan -Emekiren zenbakia sexu- eta ugalketa-eskubideei buruz
OA2.1. Sexu Informazio eta Aholkularitza bulegoa mantentzea eta indartzea.	Berdintasuna	3 orduko zerbitzua astero, abuztuan izan ezik. 9.660 €
OA2.2. Sexu Informazio eta Aholkularitza bulegoak ematen dituen zerbitzuen inguruan informatzea.	Berdintasuna	Gutunak bidaltzea ikastetxeetara; posta elektronikoak bidatzea gizarte-agenteei, udaleko langileei eta jabekuntza eskolako ikasleei; informazioa Getxoberrin; publizitatea Emekin; liburuxkak ohiko tokietan; udalaren web-orria; Osakidetzari informazioa.
OA3.1. Sexu Informazio eta Aholkularitza Bulegoaren inguruan ekimenak antolatzeke Osakidetzarekin elkarlanean aritzea (Deribazioak, kasuen jarraipenak, tailerrak...).	Berdintasuna	Bilera pediatriarekin eta kasuak bideratzea
OB1.1. . Egoitza eta Egunekeo Zentroen eskaerari erantzutea.	Gizarte Zerbitzuak Udal Egoitza	Udal-egoitzak 139 ohe ditu, eta horietatik 90 Foru Aldundiarekin hitzartuta daude. Gainontzekoak honela banatuta daude: erabilera pribatua, Gizarte Zerbitzuek bideratutako pertsonentzako erreserba eta Foru Aldundiaren bideratze-sistema zaharra. Egunekeo egoitzak 30 plaza ditu eta Foru Aldundiak kudeatzen ditu.
OB1.2. Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen udalerrri barneko desplazamenduak erraztu.	Gizarte Zerbitzuak	2014an 26 pertsonak jaso dute zerbitzu hori, ez bakarrik udalerrrian, baita kanpoan ere, bereziki Bilbon. 2 gidari profesional. 2 ibilgailu egokitu. Boluntarioen ekipoa
OB2.2. Emakumeei pertsona menpekoen zaintzan ardurak delegatzeko estrategiak eskaintzea.	Berdintasuna Gizarte Zerbitzuak	-Ikastaroa: <i>Besteak zainduz norbera zaintzea</i> , Jabekuntzaren Eskolan (16 ordu, 12 emakume)

2014ko EKINTZAK	ARDURADUNA	
OB2.3. Gizon nagusientzat auto-zainketarako eta ingurua zaintzeko genero ikuspegia duten tailerrak eskaintzen jarraitzea.	Berdintasuna Gizarte Zerbitzuak	Burutu gabeko jarduera
OI.1.1. Indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako protokoloan Osakidetzaren parte-hartze aktiboa bultzatzea.	Berdintasuna	Bileren deialdia eta aktak bidaltzea. Hala eta guztiz ere, Osakidetzak ez du parte hartu.

2014ean egin beharreko ekintzak	81	
	*	
Burututakoak	58	78,37
Gauzatze prozesuan	4	5,40
Ez dira egin	12	16,21
Ez dira egokiak	7	8,64

* Nahiz eta aurrez ikusitako ekintzak 81 ziren, egokiak ez diren 7 akzio gutxietsi dira , beraz **ehunekoak 74 ekintzen gainean egin dira.**